



## 2021EKO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



**AUZO:** UGALDETXO

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2020-10-05	19:05	20:15

### BILDUTAKOAK:

<b>Udal ordezkariak:</b>	Jexux Leonet, Enekoitz Marcos, Olaia Lasa			
<b>Herritarrak:</b>	Euskaraz: 10		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 5		Gizonezkoak: 5	
	<30 urte: 0	31-50 urte: 2	51-65 urte: 6	>66 urte: 2

### AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
<b>Aurkezpena</b>	Zinegotzien aurkezpena eta bileraren egitura azaldu da.
<b>2020 urtea</b>	2020ko egoera azaldu da. Covid-19aren eragina eta egindako lanak. Herritar batek galdetu du herri bidez hitz egiten dugunean zertaz ari garen zehazki. Argitzen da, baserritara joaten diren bideak direla. Gaur egun 80 kilometro inguru ditugula Oiartzunen hormigonatuta eta beharren arabera berritzen direla.
<b>2021eko aurreikuspena</b>	Landetxeko obrari dagokionez elizako pitzaduraren berri eman da. Neurketak egiten ari dira eta orain informazioa jasotzen ari gara obra nola jarraitu ikusteko.
<b>Auzoa</b>	Lehenengo urtean eskaerak egitera etorri ziren gatzetxoen eskaerak burututa daudela esan da, bai bidegorriko tuneleko argiteria eta lurra; baita skate park-eko lur luzaketa ere. Kalexako jardinerak kendu gabe jarraitzen dutela aipatzerakoan, bizilagun batek aipatzen du, bustita dagoenean oso arriskutsu eta irristakor geratzen dela. Garbituta ere segituan zikintzen omen da. Hirigintzako zinegotziak baieztatu du ideia kentzea dela.

Atamixko etxe berrien inguruan iritzi positiboak daude, oso polita geratu dela. Sarrera irteera ordea arriskutsu xamar omen dago, bidegorria gurutzatu behar da eta ez omen da ongi ikusten, kotxeentzat itsu geratuaz.

Atamixko etxe aurreko zelaidiaren jabetzaren inguruan zalantzak daude; oraingoz Amenabarrena da, planeamendu orokorra aurrera eramaten denean udalarena izatera pasako da.

Ugaldetxoko planeamendu orokorreko argakia azaltzen da, planeamenduaren helburura erdigunea sortzea litzake, auzoren erdigunetik errepide nagusirik ez pasatzea, zentroa peatonalizatuz. Honek aparkaleku arazoak ekar ditzakela aurreikusten du bizilagun batek, horrenbeste etxe berri egin eta futbol zelaiko aparkalekua txikituz arazoak sortuko direlakoan dago.

Planeamendu berriari begiratzen zaio eta bertan errekarri berriz ere bere lekua eman behar zaiola.

Planeamendu orokor hori noiz beteko den galdetzen dute. Zehazten da Ugaldetxoko eremu askoren jabea Amenabar dela, beraz, auzoko garapena Amenabarren esku dagoela eta berak erabakitzen duenean eta aukera duenean jarriko dutela martxan. Planeamendu hau “burbuja inmobiliarioaren” garaian egindako planteamendutik dator eta etxe asko aurreikusten dira. Gaur egun, hau aurrera eramateko zailtasun handiagoak daude. Gure nahia litzateke etxe kopurua jaistea eta beste modu batera eraman aurrera planeamendua. Garapen malguago bat desio dio auzoari udalak, baina zailtasunak ditu hori Amenabarrekin adostu beharko litzatekeelako.

Bariantearen beharra aspaldiko kontua da, noizbait gauzatu beharko da. Auzotarrek behar dute auzo bat eta horretarako behar da planeamendu hau aurrera eramatea, eta horretarako udalak lagundu/presionatu beharko dio Amenabarri.

Paradako etxea oso gaizki geratu dela dio bizilagun batek, karreteraren oso gainera dagoela. Beste bizilagun batek gogorarazten dio lehen ere etxea karretera gaineraino zetorrela.

Txipitoko bidegurutzeta aldatuta mesede egin du.

Igerobi bidean hormigoitu gabeko bide zati bat dago. Lehengo urtean ere egin zuten eskaera eta ez dute erantzunik jaso. Etxe horietara hormigonatutako bidea badago, bigarren bide hori pista bat da. Lehentasunak begiratzen direla



## 2021EKO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



	<p>azaltzen da, badaude etxeak hormigonatu gabeko biderik gabe, edota euriteengatik bidean puskatuta daudenak,...</p> <p>Aipatzen da beti priorizatzen dela ibilgailuen bidea eta ez oinezkoena. Beste bat ez dago ados, oinezkoentzako bideak asko hobetu dira, argiztapen aldetik adibidez.</p> <p>Ugaldetxoko errepideko abiadura ikaragarria da, inork ez du kasurik egiten. Radarra jartzearen idea botatzen dute, badirudi ez dagoela beste modurik. Jexuxek adierazten du auzo guztietako problematika dela abiaduraren kontua. Radarren neurria hartzera ez gara iritsi oraindik, aztertu daiteke. Arazoa auzo guztietan dago, baina Ugaldetxotik gainontzeko auzo guztietakoak pasatzen dira, arazoa ez da berdina auzo guztietan. Radarra ez bada jartzen jendeak ez du ezer errespetatzen, auzokoen proposamena da _Garro eta Intxixu artean eta Intxixu eta Arragua tartean beste bat. Aldundiarekin aztertuko dugu ea radarren bat jarri daiteken.</p>
--	---

### BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	<b>8,33</b>
bilera ongi gidatu da	<b>7,80</b>
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	<b>7,90</b>
Auzotar kopurua	<b>5,10</b>
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	<b>7,43</b>
Saioa probetxugarria izan al da?	<b>7,89</b>
Egunaren egokitasuna	<b>8,50</b>
Orduaren egokitasuna	<b>8,70</b>
Lekuaren egokitasuna	<b>8,90</b>